

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 1357/2008/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko abenduaren 16koa, etengabeko ikaskuntzaren arloan ekintza-programa bat arautzen duena.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DECISIÓN No 1357/2008/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 16 de diciembre de 2008, que modifica la Decisión no 1720/2006/CE por la que se establece un programa de acción en el ámbito del aprendizaje permanente» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 350/56, 2008/12/30ekoa)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA KONTSEILUAK BATERA HARTUTAKO ERABAKIAK

EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUAREN 1357/2008/EE ERABAKIA, 2008ko abenduaren 16koa etengabeko ikaskuntzaren arloan ekintza-programa bat arautzen duen 1720/2006/EE Erabakia aldatzen duena (Testu egokia EEeri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, tratatu horretako 149. artikuluko 4. paragrafoa eta 150. artikuluko 4. paragrafoa,

Europako Batzordeak egindako proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin diote,

Tratatuko 251. artikuluan xedatutako prozedura bete dute ⁽²⁾

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1720/2006/EE Erabakiak ⁽³⁾, 2006ko azaroaren 15ekoak, etengabeko ikaskuntzaren arloan ekintza-programa bat arautu zuen, 2007-2013 aldirako.

(2) 1720/2006/EE Erabakiak, bere 9. artikuluko 2. paragrafoan, xedatzen du 1. paragrafoan aipatu ez diren programa egiteko beharrezko neurriak erabaki horretako 10. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako prozeduraren arabera onartu beharko direla; hau da, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakian xedatutako kontsultarako prozeduraren arabera ⁽⁴⁾. 1999/468/EE Erabakian, Batzordeari esleitutako exekuzio-eskumenak nola bete behar diren ezartzen da.

(3) 1720/2006/EE Erabakiaren idazketa horrek, zehazki, zera dakar: 9. artikuluko 1. paragrafoan agertzen ez diren hautatzeko erabakiak Europako Parlamentuaren kontsulta-prozeduren eta kontrol-eskubideen mende daudela.

(4) Prozedurazko betekizun horiek hautagaien diru-laguntzen esleipen-prozesua bizpahiru hilabete luzatzea dakarte. Hainbat atzerapen ekarriko dizkie onuradunei, neurritz kanpoko zama ezartzen dute programaren administrazioan eta ez dute balio erantsirik ematen, emandako diru-laguntzen ezaugarriak kontuan hartuta.

(5) Hautatzeko erabakiak azkarrago eta eraginkorrago egiteko, beharrezkoa da kontsulta-prozedura ordezkatzea. Horren lekuan, Batzordeak komiterik bertan izan gabe 1720/2006/EE Erabakia betetzeko hartutako neurri guztiak atzerapenik gabe jakinarazi beharko dizkie Europako Parlamentuari eta estatu kideei.

HAU ERABAKI DUTE:

1. artikulua

1720/2006/EE Erabakia aldatu, eta honela geratu da:

1) 9. artikuluko 2. paragrafoa aldatu eta honela utzi da: «2. Batzordeak atzerapenik gabe erabaki hau gauzatzeko hartuko dituen gainerako hautaketa-erabaki guztien berri emango die 10. artikuluan aipatutako komiteari eta Europako Parlamentuari, erabakiak hartu eta bi laneguneko epean. Informazio horren barruan,

¹ C 224 EO, 2008.08.30ekoa, 115. or.

² Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko irailaren 2koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabe) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko azaroaren 20koa.

³ L 327 EO, 2006.11.24koa, 45. or.

⁴ L 184 EO, 1999.07.17koa, 23. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

hau adieraziko da: jasotako eskaeren deskribapena eta azterketa, ebaluazio- eta aukeraketa-prozeduraren deskribapena, eta haren finantzaziorako proposatutako proiektuen eta baztertutako proiektuen zerrendak.».

2) 10. artikuluko 3. paragrafoa kendu da.

2. artikulua

Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari erabaki honen berri emango die 2010eko ekainaren 25a baino lehen.

3. artikulua

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 16an.

Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea,

H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean

Presidentea,

B. LE MAIRE